



ZIZURKILGO UDALA



2011

**ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA
OBREN GAINEN ZERGAK
ARAUTZEN DITUEN
ORDENANTZA FISKALA**

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Udal honek, Lurralde Historikoko Udal Zergen Foru Arau Erregulatzailean eta Foru Arau partikularrean aurreikusitakoaren arabera, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ezarri eta exijitzen du, tarifa ezgarriak jasotzen dituen Eranskina honen zati delarik.

2. Artikulua

Ordenantza udalerri osoan ezartzen da.

II. EGITATZE EZARGARRIA

3. Artikulua.

Zerga honen egitate ezargarria da edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, horretarako dagokion hirigintza obra lizentzia beharrezkoa bada, lizentzia hori jasorik izan edo ez, baldin eta baimen hori ematea Udal honi badagokio.

4. Artikulua.

Enuntziatu modura, Zergari lotutako egitate ezgarri lirake ondorengoak:

**ORDENANZA FISCAL
REGULADORA DEL IMPUESTO
SOBRE CONSTRUCCIONES,
INSTALACIONES Y OBRAS**

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y la Norma Foral particular del tributo establece y exige el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el Anexo en el que se contienen las tarifas aplicables.

Artículo 2.

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

II. HECHO IMPONIBLE

Artículo 3.

Constituye el hecho imponible de este Impuesto la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija obtención de la correspondiente licencia de obras urbanística, se haya obtenido o no dicha licencia, siempre que su expedición corresponda a este Ayuntamiento.

Artículo 4.

A título enunciativo, constituyen supuestos de hecho imponible sujetos al Impuesto los siguientes:



ZIZURKILGO UDALA



1. Planta berriko eraikin edo edonolako instalakuntzak eraikitzeako obrak.

2. Badauden edonolako eraikin edo instalakuntzen zabaltze obrak.

3. Badauden edonolako eraikin edo instalakuntzen egiturari eragiten dioten aldaketa edo konponketa obrak.

4. Badauden edonolako eraikin edo instalakuntzen kanpo itxura aldatzekoak.

5. Eraikinen barne-banaketa aldatzeko obrak, erabilera edozein delarik ere.

6. Lurraren Legearen 136. Artikuluak aipatzen duen behin behingo izaeraz egin beharreko obrak.

7. Zerbitzu publikoak jartzeko obrak.

8. Lur mugimenduak, hala nola, lur-erazketak, lur berdinketak, hondeaketak eta betelanak, lan horiek onartu edo baimendutako Hirigintza edo Eraikuntza Proiektu batetan exekutatzeako obra modura zehaztu eta programatuak daudenean ezik.

9. Eraikinak botatzea, hurre-hurreko aurri kasuetan ezik.

10. Aparkalekuetara, jarduera industrial, merkantil edo profesionaletara, zerbitzu publikoetara edo lurrazpiaren beste edozein erabileretarako dauden lurrazpiko instalakuntzak.

11. Bide publikotik ikus daitezkeen propaganda kartelak jartzea.

1. Las obras de construcción de edificaciones o instalaciones de todas clases de nueva planta.

2. Las obras de ampliación de edificios o instalaciones de todas clases existentes.

3. Las de modificación o reforma que afecten a la estructura de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.

4. Las de modificación del aspecto exterior de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.

5. Las obras que modifiquen la disposición interior de los edificios, cualquiera que sea su uso.

6. Las obras que hayan de realizarse con carácter provisional a que se refiere el artículo 136 de la Ley del Suelo.

7. Las obras de instalación de servicios públicos.

8. Los movimientos de tierra, tales como desmontes, explanaciones, excavaciones y terraplenado, salvo que tales actos estén detallados y programados como obras a ejecutar en un Proyecto de Urbanización o de Edificación aprobado o autorizado.

9. La demolición de las construcciones, salvo en las declaradas de ruina inminente.

10. Las instalaciones subterráneas dedicadas a aparcamiento, actividades industriales, mercantiles o profesionales, servicios públicos o cualquier otro uso a que se destine el subsuelo.

11. La colocación de carteles de propaganda visibles desde la vía pública.



ZIZURKILGO UDALA

12. Gaitasun ekonomikoa erakusten duten baliabide ekonomikoen inbertsioa eskatzen duten eta obra edo hirigintza lizentzia behar duen edozein obra, eraikuntza edo instalazio.

III. SALBUETSIAK

5. Artikulua.

1. Ez dute Zerga hau ordaindu beharko domeinu titularitatea Udal honi dagokion higiezinaren gainean exekutatuak diren eraikuntza, obra edo instalazioek, baldin eta obraren jabe baldintza betetzen badu.

2. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ordaintzeaz salbuetsita egongo dira Zerga honi lotuak egonik, Estatuaren, Elkarte Autonomoen, Lurralde Historikoen edo Toki Entitateen jabetza diren eraikuntza, instalazio eta obrak egitea, baldin eta zuzenean errepide, trenbide, portu, aireportu, lan hidrauliko, herrien eta bere gerakin-uren saneamendurako badira, hauen kudeaketa Erakunde Autonomoek garatzen badute ere; berdin izango da inbertsio berriko lanak edo kontserbaziokoak izatea.

3. Udalerrri honetako eraikinen fatxadak birgaitzea eta margotzea bultzatzearen; eta bertako hobekuntza estetiko eta urbanistikoaren alde egitearren, zerga hau ordaintzeaz salbuetsita egongo dira fatxadak margotzeko eta birgaitzeko ematen diren lizentziak.

IV. HOBARIAK

6. Artikulua.

1. Zerga honen %50eko hobaria izango



12. Cualesquiera obras, construcciones o instalaciones que impliquen inversión de recursos económicos demostrativos de una capacidad económica y sujetos a licencia de obras o urbanísticas.

III. EXENCIONES

Artículo 5.

1. No estarán sujetas a este Impuesto las construcciones, obras o instalaciones ejecutadas sobre inmuebles cuya titularidad dominical corresponda a este Ayuntamiento, siempre que ostente la condición de dueño de la obra.

2. Se exime del pago del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, la realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sean dueños el Estado, las Comunidades Autónomas, los Territorios Históricos o las Entidades Locales que estando sujetas al mismo, vayan a ser directamente destinadas a carreteras, ferrocarriles, puertos, aeropuertos, obras hidráulicas, saneamiento de poblaciones y de sus aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por Organismos Autónomos, tanto si se trata de obras de inversión nueva como de conservación.

3. Con el fin de promocionar la rehabilitación y pintado de fachadas de los edificios de este Municipio y contribuir a su mejora estética y urbanística, se eximirá del pago de este impuesto a las licencias que se otorguen para pintado y rehabilitación de fachadas.

IV. BONIFICACIONES

Artículo 6.

1. Se bonificará con el 50% de este



ZIZURKILGO UDALA



dute etxebizitza sozialak eraikitzeko lanak edo honelako etxebizitzetarako eraikinak birgaitzekoak, bere modalitateetarik edozeinetan, edo salneurri tasatukoak, udal programaren bati edo Eusko Jaurlaritzako dagokion Sailekoari lotuak daudenean.

Arau Ezargarriak:

Tasa gutxitua ezartzea onartzeko, nahikoa kreditatu beharko da bereziki aipatzen diren programen onuradun izatea edo horiei atxikita egotea. Kreditatze hori behin betiko kitapena egin aurretik aurkeztu beharko da.

Edozein arrazoiren ondorioz tasa gutxitua ezartzeko kreditatutako programetako onuradun baldintza galtzen dutenek, tasa gutxituaren eta orokorraren arteko diferentziari dagokion kitapen osagarria egin beharko dute. Horretarako, udal administrazioari jakinarazi beharko dio egoera horri, jakiten duenetik hilabeteko epean.

V. SUJETU PASIBOAK

7. Artikulua.

1. Zerga honen sujetu pasiboak, zergadun moduan, izango dira pertsona fisiko nahiz juridikoak eta Lurralde Historikoko Zergetarako Foru Arau Orokorreko 33.artikuluak aipatu eta eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten direneko ondasun higiezin jabeak diren Entitateak, obren jabeak baldin badira; gainerako kasuetan, obraren jabea denari

Impuesto a las obras de construcción de viviendas sociales o de rehabilitación de edificios para esta clase de viviendas, en cualquiera de sus modalidades, o las de precio tasado, que están acogidas a alguno de los programas municipales o del Departamento correspondiente del Gobierno Vasco.

Normas de aplicación:

Para que sea reconocida la aplicación del tipo reducido, deberá acreditarse suficientemente la condición de beneficiario o de estar acogido a los programas que expresamente se mencionan. Tal acreditación habrá de presentarse antes de practicar la liquidación definitiva.

Quien por cualquier causa, perdiese su condición de beneficiario de los programas que han justificado la aplicación del tipo reducido, estará obligado a practicar liquidación complementaria por la diferencia resultante de la aplicación del tipo reducido y del general. A este efecto, deberá poner en conocimiento de la administración municipal tal circunstancia en el plazo de un mes desde la fecha en que tenga conocimiento de ello.

V. SUJETOS PASIVOS

Artículo 7.

1. Son sujetos pasivos de este impuesto, a título de contribuyente, las personas físicas o jurídicas y las entidades a que se refiere el art. 33 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico, propietarias de los inmuebles sobre los que se realicen las construcciones, instalaciones u obras, siempre que sean dueños de las obras; en



ZIZURKILGO UDALA

iritziko zaio zergadun.

2. Zerga-Administrazioaren aurrean obraren jabea eta egiten den higiezinaren jabea berberak ez direla fede-emaile modura agertzen denean ezik, berberak direla ulertuko da.

8. Artikulua.

1. Zergadunen ordezkotako sujetu pasibo iritziko zaie beharrezko lizentziak eskatu edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenei, zergadunak beraiek ez badira.

2. Beti ere, Udal Administrazioak zergadunaren ordezkotari exijitu ahal izango dio zergadun izaera duen pertsona edo entitatearen nortasun eta helbidea.

VI. OINARRI EZARGARRIA

9. Artikulua.

1. Eraikuntza, instalazio edo obraren benetako kostuak eratzen du Zergaren oinarri ezargarrria; ondorio horietarako, kostu hori eraikuntza, instalazio edo obra gauzatzeko kostu materiala dela jotzen da.

Oinarri ezargarritik kanpo geratzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta erregimen berezietako antzeko beste zergak, eraikuntza, instalazio edo obrekin lotuta egon litezkeen tasa, prezio publiko eta udal mailako gainerako ondare-prestazioak, eta, orobat, profesionalen ordainsariak, kontratistaren mozkin



los demás casos se considerará contribuyente a quien ostente la condición de dueño de la obra.

2. Salvo que se acredite fehacientemente ante la Administración tributaria municipal que la condición de dueño de la obra recae en persona o entidad distinta del propietario del inmueble sobre el que aquélla se realice, se presumirá que es este último quien ostenta tal condición.

Artículo 8.

1. Tienen la condición de sujetos pasivos sustitutos del contribuyente quienes soliciten las correspondientes licencias o realicen las construcciones, instalaciones u obras, si no fueran los propios contribuyentes.

2. En todo caso, la Administración Municipal podrá exigir al sustituto del contribuyente la identidad y dirección de la persona o entidad que ostente la condición de contribuyente.

VI. BASE IMPONIBLE

Artículo 9.

1. La base imponible del Impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra, y se entiende por tal, a estos efectos, el coste de ejecución material de aquélla.

No forman parte de la base imponible el Impuesto sobre el Valor Añadido y demás impuestos análogos propios de regímenes especiales, las tasas, precios públicos y demás prestaciones patrimoniales de carácter público local relacionadas, en su caso, con la construcción, instalación u obra, ni tampoco los honorarios de profesionales, el beneficio empresarial del



ZIZURKILGO UDALA

enpresariala eta hertsia-hertsian exekuzioaren kostu materiala osatzen ez duten bestelako kontzeptuak.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoaren eraginetarako, behin behingo kitapena egiteko erabilitako exekuzio aurrekontuak barne izango du obraren exekuzio materialerako aurrekontua.

3. Udal lizentziarik gabeko eraikuntza, instalazio edo obrak direnean, oinarri ezargarria Udal Administrazioak ezarriko du.

VII. ZERGA-KUOTA

10. Artikulua.

Zerga honen kuota ateratzeko, oinarri ezargarriari Eranskinean adierazitako karga ezarriko zaio.

VIII. SORTZAPENA

11. Artikulua.

Zerga eraikuntza, instalazio edo obra hastean sortuko da, dagokion lizentzia lortu gabe badago ere.

IX. KUDEAKETA

12. Artikulua.

Aginduzko lizentzia ematerakoan behin behingo likidazioa egingo da, oinarri ezargarria doakienek aurkezturiko aurrekontuaren arabera zehaztuko delarik, baldin eta dagokion Elkargo Ofizialak ikuskatua badago; horrela ez bada, udal teknikariek proiektuari antzemandako kostuaren arabera zehaztuko dute oinarri ezargarria.



contratista ni cualquier otro concepto que no integre, estrictamente, el coste de ejecución material.

2. A efectos de lo dispuesto en el número anterior, el presupuesto de ejecución sobre el que se gira la liquidación provisional incluirá el presupuesto de ejecución material de la obra.

3. En el caso de construcciones, instalaciones y obras sin licencia municipal, la base imponible se fijará por la Administración Municipal.

VII. CUOTA TRIBUTARIA

Artículo 10.

La cuota de este impuesto devendrá de la aplicación a la base imponible al tipo de gravamen expresado en el Anexo.

VIII. DEVENGO

Artículo 11.

El impuesto se devengará en el momento de iniciarse la construcción, instalación u obra, aún cuando no se haya obtenido la correspondiente licencia.

IX. GESTION

Artículo 12.

Cuando se conceda la licencia preceptiva se practicará una liquidación provisional, determinándose la base imponible en función del presupuesto presentado por los interesados, siempre que el mismo hubiera sido visado por el colegio oficial correspondiente; en otro caso, la base imponible será determinada por los técnicos municipales, de acuerdo con el coste estimado del proyecto.



ZIZURKILGO UDALA



13. Artikulua.

Dagokion lizentzia eman ondoren haserako proiektua aldatuko balitz, aurrekontu berria aurkeztu beharko da, lehenengo aurrekontuaren eta berriaren arteko diferentziarekin kitapen berria egiteko.

14. Artikulua.

1. Benetan egindako eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta euren kostu erreala ikusiz, Udalak, bidezko administrazio egiaztapena eginda, aldatu egingo du, hala badagokio, oinarri ezargarria, dagokion behin betiko likidazioa eginez, eta dagokion zenbatekoa sujetu pasiboari eskatuz edo, hala gertatuz gero, itzuliz.

2. Aurreko atalean ezarritakorako, obra bukatu edo behin behingoz jaso eta hurrengo hilabeteen zehar, zirkunstantzia honen aitorpena aurkeztuko da Udal Administrazioak emandako inprimakian. Horrekin batera, obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria, bideragarri denean dagokion Elkargo Profesionalak ikuskatua, obraren exekuzio materialaren aurrekontua ziurtatuko duena.

15. Artikulua.

Zerga kitatzeko, isiltasun administratibo positiboa ezarrita emandako lizentziek, lizentziak bereziki ematearen eragin berbera izango dute.

Artículo 13.

Si concedida la correspondiente licencia se modificara el proyecto inicial, deberá presentarse un nuevo presupuesto a los efectos de practicar una nueva liquidación provisional a tenor del presupuesto modificado en la cuantía que exceda del primitivo.

Artículo 14.

1. A la vista de las construcciones, instalaciones u obras, efectivamente realizadas y del coste real efectivo de las mismas, la Administración Municipal, mediante la oportuna comprobación administrativa modificará, en su caso, la base imponible, practicando la correspondiente liquidación definitiva y exigiendo del sujeto pasivo o reintegrándole, en su caso, la cantidad que corresponda.

2. A los efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, dentro del mes siguiente a la terminación de la obra o recepción provisional de la misma, se presentará declaración de esta circunstancia en impreso que facilitará la Administración Municipal, acompañada de certificación del director facultativo de la obra, visada por el Colegio profesional correspondiente, cuando sea viable, por la que se certifique el presupuesto de ejecución material de la obra.

Artículo 15.

A efectos de la liquidación del impuesto, las licencias otorgadas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrá el mismo efecto que el otorgamiento expreso de licencias.



ZIZURKILGO UDALA



16. Artikulua.

Ordenantza honek araututako zergaren kitapen, bilketa eta ikusketari buruzko guztirako, bai eta zerga arau-haustek kalifikatzeko eta kasu bakoitzean dagozkion zigorrak zehazteko, Foru Zerga-Arau Orokorrean aurreikusitakoa izango da ezargarri.

17. Artikulua.

Lizentzia baten titularrak baimendutako obra, eraikuntza edo instalakuntzak egiteari uko egingo balie, idatziz egindako uko egite bidez, Udalak egindako behin behingo kitapena ordaindu edo deuseztatuko du.

18. Artikulua.

Lizentzia iraungitakoan, Udalak egindako kitapena ordaindu edo deuseztatuko du, titularrak hori berritzea eskatu eta udalak baimentzen duenean ezik.

X. AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau, bere Eranskinarekin batera, eranskinean adierazitako datan onartu zen behin betiko, eta 2004ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, aldatzea edo deuseztatzea erabaki arte ezarriko delarik.

ERANSKINA - ZERGA KUOTAK

- Jarduera nekazaritza eta abeltzaintza duten Baserrietarako eraikuntza, instalakuntza eta obren lizentziak % 2,50

Artículo 16.

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección del impuesto regulado en esta ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria.

Artículo 17.

Si el titular de una licencia desistiera de realizar las obras, construcciones o instalaciones autorizadas, mediante renuncia expresa formulada por escrito, el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación total de la liquidación provisional practicada.

Artículo 18.

Caducada una licencia el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación de la liquidación practicada, salvo que el titular solicite su renovación y el Ayuntamiento la autorice.

X. DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza con su Anexo fue aprobada definitivamente en la fecha que se indica en el anexo y entrará en vigor el 1 de enero de 2004 continuando aplicándose hasta que se acuerde su modificación o derogación.

ANEXO - CUOTAS TRIBUTARIAS

- Licencias de construcciones, instalaciones y obras para Caseríos dedicados a Explotaciones agrícolas y ganaderas 2, 50 %



ZIZURKILGO UDALA



- Eraikuntza, instalakuntza eta obren lizentziak orokorrean % 5
- Izaera industrialeko eraikuntza, instalakuntza eta obren lizentziak % 5.

Nekazaritza eta abeltzantza esplotakuntzarako Baserriak» direla ulertuko da bertako titularra «Nekazari profesional» modura defini daitekeenean, kontzeptu honen definizioa ondorengo delarik:

Pertsona fisikoa, nekazaritza edo abeltzantza esplotakuntza batetako titular izanik, gutxienez bere errenta osoaren %50 zuzenean nekazal jardueratik badator, eta bere lan osoaren denboraren erdia baino gehiago nekazal jardueretara edo osagarrietara zuzentzen badu.

Titularraren errenta osoa ondorengoak batuz ateratzen da: Nekazal esplotakuntzako marjen garbi osoa eta P.F.E.Z. aitorteneko ondorengo kontzeptuak:

Banakako P.F.E.Z. aitortenetarako:

- Lan errendimenduak ken Seguritate Sozialeko gastuak.
- Kapital mobiliario eta inmobiliarioaren errendimenduak.
- Beste jarduera ekonomikoen errendimenduak.

Baterako P.F.E.Z. aitortenetarako:

- Esplotakuntzaren titularraren lan errendimenduak ken Seguritate Sozialeko gastuak.

- Licencias de construcciones, instalaciones y obras en general 5 %
- Licencias de construcciones, instalaciones y obras de carácter industrial 5 %

Se considerará «Caserío dedicado a explotación agrícola y ganadera» aquel cuyo titular pueda ser incluido dentro de la definición de «Agricultor profesional», siendo la definición de este concepto la siguiente:

Persona física que, siendo titular de una explotación agraria o ganadera, al menos el 50% de su renta total proceda directamente de la actividad agraria, y dedique más de la mitad de su tiempo de trabajo total a las actividades agrarias o complementarias.

Se entiende por renta total del titular, la suma del margen neto total de la explotación agraria y de los siguientes conceptos de la declaración del I.R.P.F.

Para declaraciones del I.R.P.F. individuales:

- Rendimientos del trabajo menos gastos de Seguridad Social.
- Rendimientos del capital mobiliario e inmobiliario.
- Rendimientos de otras actividades económicas.

Para declaraciones del I.R.P.F. conjuntas:

- Rendimientos del trabajo menos gastos de la Seguridad Social del titular de la explotación.



ZIZURKILGO UDALA

- Kapital mobiliario eta inmobiliarioaren errendimenduen %50.
- 50% de los rendimientos del capital mobiliario e inmobiliario.
- Eskatzaileak garatutako beste jarduera ekonomikoen errendimenduak.
- Rendimientos de otras actividades económicas desarrolladas por el solicitante.

«Jarduera osagarri» ondorengoak direla ulertzen da: Titularrak parte hartu eta presentzia izatea, publikoak hautatuta, ordezkaritza duten instituzioetan, edo izaera sindikal, kooperatibo edo profesionala duten organuetan, beti ere nekazaritza edo abeltzantzari lotuak badaude; bere esplotakuntzako produktuak eraldatu edo zuzenki saldu; natura eta ingurugiroa zaindu eta babestu; bere esplotakuntzan garatutako turismo, jarduera zinegetiko eta artisautza.

Se entiende por «Actividades complementarias»: Participación y presencia del titular, como consecuencia de elección pública, en Instituciones de carácter representativo, así como en órganos de carácter sindical, cooperativo o profesional, siempre que están vinculados al sector agrario o ganadero; transformación y venta directa de los productos de su explotación; conservación y protección de la naturaleza y del medio ambiente; turismo, actividades cinegéticas y artesanía, realizados en su explotación.

2011ko martxoaren 10ean Udal Osoko Bilkurak onartu zuen Ordenantza Fiskala, 2011ko maiatzaren 3ko 82 zenbakia zuen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialena argitaratu zen eta 2011ko maiatzaren 4tik aurrerako eragina du.

Ordenanza Fiscal aprobada por el Pleno Municipal en Sesión celebrada el día 10 de Marzo de 2.011 y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 82 de 3 de Mayo de 2.011, con efectos a partir del 4 de Mayo de 2.011

Idazkaria.

El Secretario.

